



# Iraunkortasunabuletina

2023ko abenduaren 20a, asteazkena

Zenbakia: 03

## PLATAFORMA

### Irabazleak ditugu!

Egiatzatu [hemen](#) Gabonetako gure lau saskietako bat irabazi duzun **ATTUNE** - **Activate the University for Climate Change** plataformari esker. Urtarrilean proiektuaren 2. fasea hasiko dugu. Zure laguntza espero dugu.



## KONTSUMO ARDURATSUA



### Xahutzea amaitu egingo da!

Eguberria ospakizunaren sinonimoa da, baina baita kontsumismo neurrigabe eta sarritan arduragabearena ere, elikagaiak xahutzea barne. Begiratu hura murrizteko gure dekalogo laburra eta geratu ideiarik onenekin. Gainera, gozatu [aprobetxamendu errezeta](#) zoragarri hauetakoren batez.

## ALBISTE INTERESGARRIAK

### 2024-2025 HPB/PIE i3lab Hezkuntza berrikuntza proiektuen deialdia zabalik

Gradu eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko Errektoreordetzak, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren (SAE-HELAZ) bidez, i3 hezkuntza-ereduaren garapenean aktiboki parte hartzeko deia egiten dio UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileei. Proposamenak bidaltzeko epea 2024ko otsailaren 9an amaituko da.



## UNICITIES 2030 proiektua abiarazi da UPV/EHUren parte-hartzearekin

Ekimen honek titulazio-amaierako lanen garapena bultzatuko du, hiri-eraldaketa jasangarrian laguntzeko, klima-neutraltasuna lortzeko hiriek aurre egin behar dieten erronka espezifikoak konponduz. Proiektua Valentzian eta Gasteizen pilotatuko da, Arabako Campuseko Errektoreordetzarekin lankidetzan, eta Unibertsitate Ministerioaren babesarekin.

### **HURRENGO EKITALDIAK**

#### **Ez galdu!**

2024/06/20 – 2024/06/21. [KulturGest Bilbao Kongresua. ARTEA, KULTURA ETA ONDAREA: kudeaketa eta jasangarritasunerako praktika egokiak](#). Matrikula egiteko epea laster irekiko da.

2024/07/03 – 2024/07/05. [SEED. International Conference on Sustainable Energy Education](#). Deadline for abstracts and proposals: 2024/01/26